

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure jarduera egin ahal izateko, ondorengo baliabideak beharko ditugu:

- **BALIABIDE FISIKOAK:** Lokal bat alokatu dugu bertan produktua biltegitzeko eta beste zenbait lan gauzatzeko (web orria eraman, eskaerak egin betaurrekoen fabrikatzaileari...). Lokalean, bi mahai, 5 portatil eta beste 5 aulki egongo dira, guk lan egiteko. Lokala, **195 metro** karratukoa da eta hilabetean **1100€** ordainduko ditugu.
- **BALIABIDE INTELEKTUALAK:** Web orri bat dugu produktuak saltzeko eta bertan honi buruzko informazioa lortzeko. Bertan atal ezberdinak eskura ditzakegu: produktuari buruzko informazioa, nola erosi, laguntza... Hortaz gain, diseinadore bat kontratatuko dugu, 5000 euro ordainduko dizkiogu.
- **FINANTZA BALIABIDEAK:** Taldean 5 kide gara. Dirua guk jarriko dugu. Sozietate anonimo bat garenez, ekarpen minimoa 3000 eurokoa da. Bost garenez, bakoitzak 1000 euro jarriko ditugu, eta, horrela, 5.000 euro izango ditugu enpresarentzat. Hasierako diruarekin, alokairua ordainduko dugu, eta Sunglasses Color-i lehen ordainketa egingo diogu. Mailegu baten bidez gainerako gastuak ordainduko ditugu eta mailegu hori pixkanaka pixkanaka itzultzen joango gara hilabetero.
- **GIZA BALIABIDEAK:** Gure langileak, ez dira kualifikatuak izan behar. Izan ere, lana hasi baino lehen, ikastaro labur bat emango zaie, lana nola egin ikas dezaten. Lantegian, alde batetik, gu egongo gara lan egiten eta beste aldetik langile hauek izango dira, betaurrekoak kalitate onean iritsi diren egiaztatzen edo arazorik baduten aztertzen, gure bezeroei egoera onenean iristeko produktua. Langile hauei, 1000€ euroko soldata izango dute.

